

Eskola-lanen V. Lehiaketa

GURE eskubideak

Aurten, Arartekoak giza eskubideei buruzko eskola-lanen V. Lehiaketa iragarri du.

Nork har dezake parte?

EAEko ikastetxe guztietako ikasleek, Lehen Hezkuntzakoek nahiz Bigarren Hezkuntzakoek. Gehienez ere 10 lan aurkeztu ahal izango dira ikastetxe edo etapa bakoitzeko.

Nolako lanak izango dira?

Ikusteko edo ikus-entzunezko materialak, ikasleek berek eginak, Arartekoaren web gunearen bidez edo argitalpen baten bidez ezagutaraz daitezkeenak, kontsultatzeko edo erabilera didaktikoa emateko. Bi euskarritan:

Lehen Hezkuntza: ikusteko materialak paperean (komikiak, horma-irudiak, dosierak, grafikoak...) edo euskarri informatikoan (power point-en egindako agiriak...).

Bigarren Hezkuntza: ikus-entzunezko materialak bideo digitalean (euskarri hauetako batean: CD-ROM, DVD, pendrive). Gehienez ere 3 minutu iraungo dute eta 20 megatik beherako tamaina izango dute.

Eskolako dinamikaren barruan sortutako materialak izango dira (zikloko proiekturen bat; hiritartasunerako hezkuntza; lankidetzan egindako lanak; tutoretza-lana; hizkuntzak...). Ikastetxean irakasteko erabiltzen diren hizkuntzetatik edozeinetan (euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez...).

Zeri buruz?

Giza eskubideekin edo, zehazkiago, haurren eskubideekin zerikusia duen edozeri buruz. Eskubide zehatz bat landu daiteke (adibidez, parte hartzeko eskubidea), edo funtsezko balioen bat (esaterako, ezberdintasuna onartzea eta errespetua), edo eskubideen ikuspegi orokorragoa eman daiteke.

Noiz eta non aurkeztu?

Noiz: 2010eko maiatzaren 30a baino lehenago

Non: Bidali helbide honetara:
Arartekoa (eskola-lanen lehiaketa)
Prado 9
01005 Vitoria-Gasteiz

Nola baloratuko dira lanak?

Arartekoak irakaskuntzarekin eta giza eskubideekin lotura duten pertsona batzuen batzordea izendatuko du. Batzorde horrek neurtuko du lanak zenbateraino egokitzen diren deialdi honetara, beren originaltasuna eta kalitatea, baita Arartekoaren web guneari argitaratu eta ezagutarazteko ematen dituzten aukerak ere.

Balorazioa egiteko orduan, zenbait alderdi hartuko dira kontuan, adibidez, sentiberatasun berezia erakustea genero-berdintasunarekiko, gutxiengo etnikoetako pertsonak eta ezintasun fisiko edo intelektuala dutenak gizarteratzearekiko; baita datu pertsonalak egoki tratatzea ere.

Sariak eta partaidetza ziurtagiriak

Hasieran behintzat, bi sari emango dira, bat kategoria edo etapa bakoitzeko: Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza.

Saria ikastetxearentzat izango da: material informatikoa (arbel digitala, ordenagailu eramangarria...) edota lankidetzaz-jolasen sorta bat.

Saritutako lanetan parte hartu duten ikasleei (gehienez, ziklo bateko) egun bateko bidai edo ibilaldia eskainiko zaie.

Ikastetxeek partaidetza ziurtagiri bat jasoko dute.

Sariak arartekoak emango ditu, ekitaldi publiko batean.

Lanak argitaratu eta hedatzea

Lanak baloratuko dituen batzordeak proposamen bat egin ahal izango du, interesgarrienak iruditzen zaizkionak argitaratzeko. Argitalpen hori gure erkidegoko ikastetxe guztietara igorriko da, jardunbide egokiak edo giza eskubideen alorreko baliabideak ezagutarazteko modutat.

Ikastetxe bakoitzak adierazi behar dituen datuak

- Ikastetxearen izena, helbidea, telefonoa eta harremanetarako pertsonaren izen-abizenak (lanaren sustatzailearenak).

- Aurkeztutako materialak ikastetxe, ziklo, maila, irakasgai eta abarreko eskola-dinamikan sortu direla eta dinamika horrekin lotuta daudela erakusten duen idazki laburra.

- Aurkeztutako materialak egin dituzten ikasleen izen-abizenak.

Zalantzarik izanez gero eta informazio gehiago jasotzeko

Ararteko erakundearekin harremanetan jarri (901 640 900 edo 945 13 51 18) edo Arartekoaren web gunea kontsultatu (www.ararteko.net).

Animatu parte hartzera!

